

ZERAINGO HERRI KANDIDATURA

BLOGA

Nor gara?

Herria gobernatzeko auzolana oinarri izan duen herritar talde batek osatzen dugu Zeraingo Herri Kandidatura.

Zeraingo Herri kandidatura independentea da eta inongo partidu politikori lotu gabe egon da eta horretan jarraitzea du helburu. Alderdien aurretik Zerain herria eta bertako herritarrak gaudela sinesten dugu.

Gure historia

70. hamarkada

- Udalaren osaketa
- Gurea etxeak: kooperatiban 24 etxebizitza eraiki ziren

80. hamarkada

Kontzientzia soziala indartu eta bizi kalitatea hobetzeko lehen pausoak ematen dira

- Herri eskola berriro irekitzen da
- Oa Kultur elkarteak sortzen da
- Urtekariaren lehen aleak argitaratzen dira
- Etab.

90. hamarkada

- Ondare materiala eta inmateriala berreskuratzen hasten da pixkanaka. San Blas ermita, Larraondoko zerrategia, Herri museoaren sorrera,... baina aldi berean Santa eskea, San Juan bezpera, ... ere berreskuratzen dira.

- Bizi kalitatea hobetzeko hainbat ekimen bultzatzen dira.

- Lehen sektorea eta turismoa lotuz, arlo sozio ekonomikoa lantzeko helburuarekin Zerain Dezagun Fundazioa sortzen da.

- Goierriko lehen turismo bulegoa irekitzen da eta honekin batera herriko denda txikia.

- Etab

XXI. mendea

- Ondare materiala berreskuratuz, Aizpeako Meategietan – Burdinaren mendian zaharberritze lanekin jarraitzen da eta hau balioan jartzeko lan ugari egiten da.

- Aizkorri Aratz Parke Naturalari loturiko lur sailak publiko egiteko asmoz, lur sail kopuru garrantzitsua erosten da.
- Lehen sektorea eta turismoa lotuz, herriko arlo sozioekonomikoa bultzatzeko hainbat ekimen indartzen dira: gazta eta sagardoa lortzeko ekimenak, Sagardotegietara autobusak, Irrien Lagunen barnetegiak, etab.

Baina momentuero helburu bakar bat izan du proiektuak: Zerain eta zeraindarren bizi kalitatea mantendu eta hobetzea. Honexegatik baserrietako errebideak zaharberritu dira, gas eta saneamentua ahalik eta etxe gehienetara iristeko ahalegina egin da, ura eta argindarra etxe guztietan izatea lortu da... Urteetan zehar eskola txikia, herrian mediku zerbitzua mantentzea, haurreskola izatea, autobus zerbitzu publikoa iristea, kutxazaina izatea, Ostatu eta Mandio zabalik mantentzea, herrian denda izatea, ogi banaketa zerbitzua eskaintzea... helburu hartuta lan ugari egin da.

Auzolana oinarri

Demokrazian sakonduz, herritar guztiei hitza emanez, gatazka eta zatiketa egoera gainditu nahi dugu, oraingo egoerari buelta eman, eta guztiok normaltasunez eta ondo biziko garen Zerain lortzeko bidea egin nahi dugu. Zerain bakarra nahi dugu, denok lekua izango duguna, diferentziak hitz eginez konponduko dituguna eta pasatako guztitik ikasita, aurrera begiratuko duena.

Gu ez gara politikariak, ez gara alderdi politiko baten edo besteren ordezkariak; gu gure herriarentzat onena nahi dugun herritarrak gara.

Guk nahi dugun herrian, zeraindar denok dugu lekua, berdintasunean herriko kontuetan parte hartzeko eskubidea eta ardura dugu.

Berriak

- Zeraingo HK blog berria
Zeraingo Herri kandidaturak herritarrei informazio zuzena eta kontrastatua emateko asmoz blog berria ireki du.
Legealdi honetan zehar ZHK-ko zinegotziek momentuero informazioa eskatzen duten arren, EHBildu-ren gobernuak informazioa ukatu egiten die. ZHK-ko zinegotziek Udalean eta herrian gertatzen denaren berri izateko eskubidea badute ere, informazioa ezkutatu egiten zaie.
Gainera, ZHK bere informazioa helarazteko Udaleko bideak erabiltzen saiatu den arren, Udal Gobernuak momentuero herri kandidatuaren informazioari betoa jarri dio.
Horrexegatik, herritarrengana iritxi nahian egitasmo berri hau sortu dugu eta hemendik aurrera blog honetan aurkituko duzue gure berri.

Argazkia: blogan pantailazoa

Webaren helbidea:

Whatsappean alta emateko aukera.

Kontaktua

zeraingohk@gmail.com

whatsapp-a:

Youtubeko kanala